

1/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025KO OTSAILAREN 6AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

IDAZKARIA:

Elena Zaldua Miguel

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025ko otsailaren 6an, arratsaldeko 19:03tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Elena Zaldua Miguel aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta ezohiko bilkura egiteko arrazoiak a

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- 2024KAPI0004 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN BAITAN, KONTRATAZIO MAHAIAK EGINDAKO ESLEIPEN PROSPOSAMENA ONARTZEKO ETA ENPRESARI DOKUMENTAZIOAREN ERREKERIMENDUA EGITEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du Udalbatza denez 2024KAPI0004 kontratazio espedientearen kontratazio organoa, Next Generation dirulaguntza bat esleitua dugunez, iruzurraren aukako planaren baitan, MINERVA pasa zaiela bai kontratazio mahaiko kideei, baita udalbatza osatzen dutenei ere.

Jarraitu du adieraziz MINERVAK ez dagoela interes gatazkarik ondorioztatu duela eta hurrengo pausu bezala udalbatzako kideek “interes gatazkarik ez dagoenaren adierazpena” (DACI) sinatu behar dutela eta Coffee plataformara igoko direla MINERVAREN emaitzarekin batera.

Ondoren, dagoeneko udal zinegotziei helarazi zitzairen espedienteko dokumentazioari egin dio erreferentzia.

Halaber, 2025eko otsailaren 3ko kontratazio-mahaiaren ostean, kontratazio-mahaiak ondorengo esleipen proposamena egin zion kontratazio-organoari:

“...

Horrenbestez, hau da enpresa lizitatzailerik kontratazio-prozesu honetan lortutako guztizko puntuazioa:

CONSTRUCCIONES LOIDI, S.L.		
BALIO-JUDIZIOA JUICIO DE VALOR	ESKaintza EKONOMIKOA OFERTA ECONÓMICA	PUNTUAZIOA PUNTUACIÓN
22	50,53	72,53

UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.		
BALIO-JUDIZIOA JUICIO DE VALOR	ESKaintza EKONOMIKOA OFERTA ECONÓMICA	PUNTUAZIOA PUNTUACIÓN
39	55	94

Emaitza ikusita, kontratazio-mahaiak, bertaratutakoen aho batez, erabaki du **UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.** enpresaren aldeko esleipen proposatzea kontratazio-organoari. Enpresa horrek 94 puntu lortu ditu gehieneko 100 puntutik.

...”

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertutik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

Lehen. Onartzea Anoetako Udaletxea eraikinaren birgaitze eta eraberritze energetikoaren obrak kontratatzeko prozeduran (2024KAPI0004) Kontratazio-mahaiak **UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L.** enpresaren alde egindako esleipen-

proposamena.

Bigarrena. UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresari, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaila den aldetik, errekerimendua egitea, bost egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, hau da, Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren 43. baldintzan aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkez dezan, ohartaraziz errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, eskaintza erretiratu duela ulertuko dela eta hurrengo lizitatzailari dokumentazioa eskatuko zaiola, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

12.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:06etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.